

“BERBALAGUN”
Helduen euskalduntze-alfabetatzea
suspertu eta euskararen erabilera
bultzatzeko egitasmoa - 2017



AURKIBIDEA:

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- OINARRI NAGUSIAK:

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

3.2.- KRONOGRAMA

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

3.4.- ORGANIGRAMA

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

5.- AURREKONTUA

ERANSKINAK:

I. Eranskina: 2016ko hitzarmen berria

II. Eranskina: 2016-2017ko AEK-ren plangintza

III. Eranskina: Gernika-Lumo eta inguruak ezagutzeko ibilbideak (karpetaren azalak)



1.-SARRERA

2004an abian jarri zenetik mantendu egin den egitasmoa dugu eta iraun dezan ahaleginean gabiltza. Aurreko urteetan izandako balantze positiboa eta emaitza ezin hobeak azpimarratzekoak izanik, 2017an, egin beharreko egokipenak bitarteko, “Berbalagun” hobetzeko osagarriak gauzatuko ditugu kanpainan.

2.- HELBURUAK

“BERBALAGUN” proiektu honekin lortu gura diren helburuak:

- Euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea.
- Euskara ikasleen motibazioa lantzea.
- Euskara ikasleengan suspertzea.
- Euskara ikasleen integrazioa bultzatzea.
- Euskara gaitasuna hobetzea.
- Euskaldunak erdaldunen integrazio prozesuan inplikatzeko.
- Gernika-Lumoko berbakera ezagutzera ematea.

Eta hori guztia, ESEPeren arabera moldatutako 2017ko Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzak oinarri:

Helburua estrategikoa: Transmisioa / ondorengoetaratzea.

Esparrua eta helburua:

3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)

3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea

- 3.8.2.2.- Helduen adin-taldea kontua hartu, Berbalagun indartu eta Hizkuntza portaeretan eragiteko tailerrak antolatu



5. Gune geografiko euskaldunenak

5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)

5.1.6. Helduentzako edozein arlotako etengabeko prestakuntza euskaraz eskaintzea

- 5.1.6.3.- Helduentzako ikastaroak eta ekimenak antolatu euskaraz: erlajazioa, sukaldaritza, jostekoa, bitxigintza, dantza,...

Azpiekintzak:

- | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| - Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa. |
| - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeke eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea |
| - Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua |
| - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu |
| - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu |
| - Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu |
| - Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu (hitzaldiak) |

3- OINARRI NAGUSIAK

Zutabea dugu Gernika-Lumoko Udala eta Gernikako AEKren artean 2004an sinaturiko hitzarmena oinarri, 2016an berri bat sinatu da (I. eranskina) hurrengo urteetan luzatzekoa, egin beharreko egokipenak bitarteko. Arestian esan bezala, helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertu (ondorengoteratzeko helburu estrategikoa) eta euskararen erabilera areagotzea du helburu nagusizat.

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

- **Eginbehar nagusiak.**- Aurreko urteetan finkatutako hobekuntzei eutsi behar zaie 2017an, egitasmoa gauzatu ahal izateko lanen sistematizazioa lortze aldera:
 - Talde eragilearen koordinazio-bileren aldikotasuna bermatu.
 - Kanpainan partaide diren mintzakideentzat zein hauen lagun hurkoentzat hileko programazio berezia eratu.
 - Kanpainarako mintzakideak erakartzearen, zabalkundea urtero egiteko sistema zehaztu.
 - Hileko Berbalagun-eko programazioaren berri emateko komunikazio-plantxoa eratu.
- **Dinamizaziorako ekintzak:**
 - Mintzalagun taldeak eratu (euskaldun zahar bat eta beste lau berbalagun trebagai; guztira 15 bat talde).
 - Tailerrak antolatu (berbalagunkideek lehentasuna izan arren, zabalik daude tailerrok edonorentzat).



- Irteerak antolatu (hilean pare bat irteera, ekologia, historia, ohitura edo abarrak lantzekoak).
- “Ezetz jakin” lehiaketa antolatu. Hogei bat galderen erantzunak asmatzen dituztenen artean zozketa egiten da eta saridun bat aukeratzen da hilero. Saria udalerriko jatetxe, denda edo erakunderen batek doan emandakoa da. Lehiaketa honetan bataz besteko partaideen kopurua 80 batekoa izaten da.
- **Azpiekintza bereziak:**
 - 2007an Berbalagun egitasmoarekin lotu zen ikastolen jaialdietara (Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats) joateko bidaien antolakuntza, guztira 5 jaialdi. Udalak berak zuzenean antolatuko ditu.
 - 2017ko Mintzaeguna: irteera berezia, Euskal Herriko “berbalagun” taldeen biltzeko jaialdira.
 - Berbalagunek urteetan zehar antolatutako irteera eta ibilaldietako informazio-gidak bildu eta urteanitzeko argitalpen bilduma bat eratzen gabilta (“Gernika-Lumo eta inguruak ezagutzeko ibilbideak”). Zati bat 2016an moldatu da (karpeta azalak / III. Eranskina) eta 2017an osatzen jarraituko dugu.

3.2.- KRONOGRAMA

Ikusi II. Eranskinean koordinatzaileak mintza taldeen eraketari buruz eta egitasmoaren dinamizazioaz egindako txostena.

Jarduerak	Urt	Ots.	Martx	Apir.	Maia.	Ekain.	Uztail.	Abuz.	Irail	Urria	Aza	Abend
Ekintzak planifikatzea												
Boluntarioak biltzea												
Mintzasaiok antolatu												
2017ko zabalkundea												
Eskolaratzea bideratzea												
Hitzaldiak												
Irteerak												
Jaialdi bereziak												
Ibiltari.... Argitalpena (15 fitxa inprimatu)												
Jatorduetako taldeak												
Mintzataldeen saioak eta tailerrak antolatu												
Talde eragilea (batz.)												
Datu baseak osatzea												
“Ezetz jakin” lehiaketa												

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:


- Euskara Zerbitzua, egitasmoa diruz eta azpiegituraz hornitzeko.
- Gernikako AEK (egitasmoaren koordinazioa).
- Euskaltegiak (AEK euskaltegia eta AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia): datu baseak sortu zabalkunderako eta eskolaratzea bideratu.
- Busturialdean Euskaraz Bizi: egitasmoaren zabalkunde egin eta partaideak eta bolondresak bilatu.
- Euskara Batzordea (egitasmoaren bultzatzailea eta babeslea).
- Udaleko Hezkuntza Saila (ikastoletako jaialdi berezietarako bidaiak antolatzea).
- Zentroetako Guraso Elkarteak (Gurasolagun-erako)

Baliabideak:

- Diruzkoak eta azpiegiturarakoak Udaleko Euskara Zerbitzuak jarriko ditu, 2017ko Kudeaketa Plana garatzeko aurreikusitako partidetatik eta azpiegitura aldetik Udalarenak erabiliz (Kultur Etxeko gelak,).
- Giza baliabideak:
 - Euskara Teknikaria I (Euskara Zerbitzua)
 - AEK-ko teknikaria
 - Mintzasaiotarako bolondresak (15/20).
 - Euskaltegiako zuzendariak (Talde Eragilean partaide).

3.4.- ORGANIGRAMA

Egitasmoaren funtzionamendurako eta jarraipenerako eratutako egitura hauxe da:



4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK:

Xede taldea:

Jarraian azaltzen den koadroaren arabera, egitasmo hau doakien unibertsoa “(*)” ikurraz azpimarratutakoen batura litzateke, 3.836 biztanle 2001eko erroldaren datuen arabera; 2006ko erroldaren datu bilketa ez zen horren zehatza izan, baina ondorioztatzen duguna da erdaldungoa murriztuz doala eta sasi-euskaldun eta euskaldun berrien kopuruak egiten duela gorantz. Euskaldun osoena mantendu egiten da (euskaldun zaharrak+euskaldun berriak).

	1991 urtea		2001 urtea		2006 urtea	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Euskaldun zaharrak	8720	56,6 3	8180	56,33	10.55 2	67,8 7
Jatorrizko elebidunak (*)	793	5,15	743	5,11		
Euskaldun berriak (*)	692	4,49	1173	8,08		
Partzialki euskaldun berriak (*)	1297	8,42	1458	10,04	2.779	17,8
Partzialki erdaldunduak (*)	625	4,06	462	3,18		7
Gutziz erdaldunduak	227	1,47	159	1,09	2.216	14,2
Erdaldun zaharrak	3043	19,7 6	2344	16,14		5
	15397	100	14519	100	15.54 7	100

Dena dela, guk, zabalkunde orokorra egiteaz gain, eraginkortasuna aitzakia eta xede taldea zehazte aldera, hurrengo hauek izango ditugu kontuan zabalkunde berezia eta pertsonala egiteko:

- Euskara ikasten edo lantzen ari direnak (400 bat)
- Euskalegietako ikasle ohiak (700 bat)

Adierazleak:

- Zehaztutako xede taldetik partaide izango direnen kopurua.



- Euskararen erabilerari buruzko neurketak (Soziolinguistika Klusterra).

5.- AURREKONTUA

Egitasmoaren dinamizazioa –teknikaria-, bulego gastuak. (AEK, hitzarmena)	14.000
Dinamizazioa: antolaketa, tailerrak, irteerak, ikastaroak,...	1.500
Ibilbideen argitalpenerako fitxak: 15 ibilbide (500 ale) inprimatzea eta manipulatzeari	3.200
Beste 5 ibilbide prestatu	2.400
Gastuak guztira	21.100

Gernika-Lumon, 2017ko urtarrilean

Marisa Aldamizetxebarria
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia
Hizk. Normalizaziorako Tek.



1. ERANSKINA

**“AEK EUSKARAZ KOOP. ELKARTEA”
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA,
“BERBALAGUN” EGITASMOA 2016
URTEAN GARATZEKO**

(Honako hitzarmena luzatu egingo da hurrengo urteetan alde bien arteko adostasuna mantentzen den artean)



2. ERANSKINA

2016-2017KO BERBALAGUN AEK-REN PLANGINTZA

